


Euskal AEko BPG urte arteko %2,9 gehitu da 2016ko laugarren hiruhilekoan

2016 osoan, %3,1 zenbatesten da, aurrekoan baino bi hamarren gehiago

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %2,9ko hazkundera izan du 2016ko laugarren hiruhilekoan urte artean, urtaro- eta egutegi-eraginik gabe, Eustaten aurrerapen-datuen arabera.

Aldakuntza-tasa %0,6 aurreko hiruhilekoaren aldean.



Eskaintzaren ikuspegitik, 2016ko laugarren hiruhileko urte arteko hazkundera izan da zerbitzuek jokaera hobea izan dutelako eta industrian hazkunde-erritmoari eutsi zaiolako.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan, %1,9 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Hiruhileko artean %0,8ko hazkundera.

2016 osoan, BPGren lehen zenbatespena %3,1eko hazkundera da; 2015ean baino bi hamarren gehiago. Industria eta zerbitzueta hazkunderak batez bestekoaren inguruan; lehen sektorean eta eraikuntzan apalago. Eraikuntzan bigarren hazkundera jarraian, zazpi urtez negatiboan ibili ondoren.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan, %1,9 gehitu zen 2016an.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo hiruhileroko kontuak. Aurrerapena. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo hiruhileroko kontuak. Aurrerapena. Datu-bankua